



## Jatorri berriztagarria duen energia elektrikoa taldean erostea SmartKalea proiektuaren esparruan

### Zer da taldean erostea? Testuingurua

Donostia Sustapenak, SmartKalea proiektuaren esparruan, kontsumitzaileen elkarte bat sustatzen du, proiektuarekin bat egiten duten saltoki batzuek osaturikoa. Saltoki horiek, modu bateratuan, energia elektrikoa erosteko eskaintzak eskatzen dizkiete enpresa merkaturatzaileei. Elkartearen helburua da energia elektrikoaren hornikuntzan erabiltzaileek banaka eskuratuko lituzketen baino prezio lehiakorragoak lortzea.

Gainera, ingurumen jasagarritasuna sustatzen da, enpresa merkaturatzaileari eskatzen baitzaio hornitzen duen energia elektrikoa % 100 jatorri berriztagarria duena izatea. Horrek hobekuntza dakar ingurumen eraginean, eta atmosferara isurtzen den CO2 kopurua ere murriztu egiten da.

SmartKalea proiektuaren ekimen hau, energia taldean erostekoa, urtero egiten da. Lehenengo aldiz, 2017an antolatu zen, SmartKalea proiektuarekin bat eginda zeuden Donostiako Alde Zaharreko saltokientzat. Orduetik, ekimena hiriko auzo gehiagotara zabaldu da, eta, gaur egun, SmartKalea proiektua jardunean dagoen Alde Zaharreko, Altza auzoko eta Antso Jakitunaren Hiribideko saltokiek parte hartzen dute, proiektuarekin bat eginda daudenek. 2021ean, proiektuarekin bat eginda dauden Txomin auzoko etxebizitzetara ere hedatu da ekimena, eta etxebizitza horiek, beren aldetik, banakako Energia Eraginkortasunaren inguruko Aholkularitza jaso dute.

Azkeneko elkarte 2021eko azaroan egin zen, eta 27 erabiltzailek hartzen dute parte bertan. Parte-hartzaileen artean nabarmentzen dira moda eta osagarrien sektoreko saltokiak, baita elikadura arloko saltokiak ere. Azpimarratzekoa da 2021ean izena emandako saltoki guztien artean % 78k aurreko urteko elkartearen ere hartu zutela parte.

### Tarifak eta enpresa merkaturatzailea

Edizio honetan, elkartearentzat eskaintzarik abantailatsuen aurkeztu duen enpresa merkaturatzailea Iberdrola izan da. Prezio finkoen tarifa mota du urteko edozein ordutan eta egunetan, eta hori tarifa lehiakorra da, merkatuak goranzko joera duela ikusita. Iberdrolaz gain, taldeko erosketaren prozesura beste bi enpresa merkaturatzailek ere aurkeztu dituzte eskaintzak, Naturgy eta Audax enpresek.

Taldeko erosketaren aurreko edizioetan, Aura Energía (2017-2019), Enerty-Aldro (2020) eta Nexus Energía (2021) enpresa merkaturatzaileak izan ziren lehiakorrenak.

Jarraian, egungo taldeko erosketaren tarifa agertzen da:

| Pot.         | P1     | P2     | P3     | P4     | P5     | P6     |
|--------------|--------|--------|--------|--------|--------|--------|
| <b>2.0TD</b> | 0,081  | 0,014  |        |        |        |        |
| <b>3.0TD</b> | 0,0338 | 0,0274 | 0,0116 | 0,0091 | 0,0071 | 0,0071 |

| Energia      | P1-P6  |
|--------------|--------|
| <b>2.0TD</b> | 0,1638 |
| <b>3.0TD</b> | 0,1539 |

Taldeko erosketaren egungo tarifa

# smartkalea

Donostia-San Sebastián

SmartKalea proiektuko taldeko erosketarekin bat eginda dauden saltoki gehienek 2.0TD tarifa dute harpidetuta, eta ehuneko txiki batek 3.0TD tarifa dute.

Merkatua nozitzen ari den ezegonkortasuna eta prezioen gorakada dela-eta, aurten helburua ez da izan aurreko urtearekin konparatuta tarifetan aurrezte, baizik eta tarifa lehiakorra lortzea egungo merkatuko tarifekiko. Hori horrela, egungo merkatuko tarifekiko konparazioa eginez, kalkulatu da erabiltzaile bakoitzak batez beste % 35 aurreztuko duela. Prezioen tarifa konstantearen aldeko apustua egin da, modu horretan saihestu ahal izateko egun merkatua nozitzen ari den prezioen ezegonkortasunak eraginiko ondorioak.

## Aurrezpena eta kontsumoak

Elkartean parte hartzen duten saltokien kontsumoa, guztira, urteko 92.867 kWh-koa da, eta espero da urteko aurrezpen globala 9.000 euro ingurukoa izango dela, hau da, % 35eko aurrezpena 2022rako esperotako gastuarekiko, merkatuan dauden tarifak kontuan izanik. Nabarmendu beharra dago parte-hartzaileen zati handi bat (% 78) jada aurreko urteko erabiltzaileen elkartekoa zela, eta, beraz, jada tarifa abantailatsuak zituztela hasieratik; horregatik, kasu hauetan ez da hain nabarmena aurreko urteekin alderatuta egin duten aurrezpena, baina bai, ordea, egungo merkatuko tarifa estandarrekin alderatuta egin dutena.

Aurreko edizioetan merkatu elektrikoak ez zuen nozitu egungo prezioen igoera, eta saltokiren batek lorturiko gehieneko aurrezpena % 50 artekoa ere izan zen, aurretik zuen tarifa elektrikoarekin alderatuta.

## Aholkularitza energia eraginkortasunaren inguruan

Smartkalea proiektuaren esparruan, banakako aholkularitzak ere ematen zaizkie, modu osagarrian, proiektuarekin bat eginda dauden saltokiei. Aholkularitza horietan banakako energia kontsumoa aztertzen da, kontsumoak monitorizatu, instalazioetara bisitak egiten dira eta saltoki bakoitzari hobekuntza neurriak proposatzen zaizkio, energia kontsumoa murriztea lortzeko helburuarekin, eta, ondorioz, dirua aurreztuz. Energia eraginkortasunaren inguruko aholkularitza jaso ondoren, erabiltzaileen elkartean sartzeko proposamena egiten zaie, beren tarifa elektrikoaren prezioak murrizteko aukera izan dezaten.

## Ikasi duguna

Kontsumitzaileen elkarte bat eratzeko orduan, garrantzitsua da kontsumo profil antzekoa dutenak kontuan hartzea, eta elkarteak antzeko tipologiaren arabera egitea. Horrela, tarifarik abantailatsuenak lortu ahal izango dira kontsumo profil bakoitzarentzat.



## Prozedura

1. 2021eko urrian barrena, energia elektrikoa taldean erosteko erabiltzaileen elkartean izena emateko aldia zabaldu zen, SmartKalea proiektuarekin bat eginiko kideentzat.
2. 30 partaidek eman zuten izena hasieran elkartean, eta informazioa eman zuten hauei buruz: horniduraren titularra, NAN/IFK, horniduraren helbidea, HPKU, kontraturiko potentzia, eskaintzarik lehiakorrenak aukeratzeko prozesuari hasiera emateko enpresa.
3. Letter Ingenieros enpresak, SmartKalea proiektuaren kolaboratzaileak, baldintza teknikoen oinarriak idatzi zituen elkartearantz, eta energia elektrikoaren enpresa merkaturatzaileei tarifak eskatzeko kudeaketa egin zuen, elkartean eskatzen zen potentzia elektriko guztiarentzat, izena emandako parte-hartzaileen alde aurreko baimenarekin. 20 enpresa merkaturatzaileari eskatu zizkien tarifak, horien artean, elkartean izena emanikoekin kontratua zuten guztiak ere.
4. Jasoriko eskaintzen artean, parte-hartzaileentzat abantailatsuenak ziren tarifen eta baldintzen kontratua aukeratu zen, baldintza teknikoetan ezarritako eskakizunak betetzen zituena. 3 eskaintza jaso ziren, eta, prezioak konparatu ondoren, Iberdrolarena izan zen eskaintzarik abantailatsuenak, prezio finkoen tarifarekin.
5. Behin tarifa esleitu ondoren, kontratua 2021eko azaroan sinatu zen, banaka, esleituriko enpresa merkaturatzailearen eta kontsumitzaile bakoitzaren artean, energia elektrikoa banaka kontratatzen den modu berean, baina taldeko erosketan ezarritako baldintza abantailatsuei eutsiz. Azkenik, 27 parte-hartzailek sinatu zituzten kontratuak (hasieran izena emandakoen % 87k).
6. Kontratua indarrean egongo da urtebete naturalean, kontratua sinatzen denetik kontatzen hasita. Urtebete igaro ondoren, jatorri berriztagarria duen elektrizitatea erosteko elkarte berri bat sortuko da.